

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

55/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Klima Araba 2050 Plan Estrategikoaren barruan Arabako herritarren eta indar politikoen parte-hartze prozesua bermatzearen alde

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

55/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Klima Araba 2050 Plan Estrategikoaren barruan Arabako herritarren eta indar politikoen parte-hartze prozesua bermatzearen alde.

1. Arabako Batzar Nagusiek bere babesa adierazten diote Arabako Lurralde Historikoko inplikaturako eragile guztiak barnebiltzen dituen parte-hartze publikoko prozesuari, Klima Araba 2050 Estrategia erredaktatzeko lanak kontratatze arautu behar duen baldintza teknikoen pleguan jasotzen den bezala, zeina Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zailak sustatu duen. Aurrekoaz gain, eta kontuan izanik gai honek gizartean duen garrantzia, eskatzen du parte-hartze prozesua izan dadila ahalik eta zabalena, bermatzeko Arabako herritarrek, eragile ekonomikoek eta ingurumen arloko eragileek parte hartzea, ekarpenak egitea, eta ekarpen horiek baloratu eta aintzat hartzea estrategia hori behin betiko onartu aurretik.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, parte-hartze publikoko prozesua burututa, Klima Araba 2050 Estrategia komunikazio-prozeduraren arabera izapidetu dezala, Arabako Batzar Nagusien Araudiaren 186. Artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA